

ZIORTZA: (VI) ELEIZ-TOKIAK

Eleiza aundietan, gotzain-eleizetan be bai, alboetan eleiz-tokiak, kapillak, izaten dira. Ziortza'ko eleizeak, aundia izan ez arren, ba-dauz toki bereziak. Aztertu daiguzan urrengorik urregora.

MIKEL DEUNARENA

Ezker- aldetik eleizearen erdi-inguruan dago.

Sarreran arku eder bat aurkitzen dogu, apur bat erpindua eta arku-arlo bakoitzean apaingarriak dauzala.

Barrura sartu ezker, XVIII mende-ko margozki aundi bat ikusten dogu: Xabier'eko Frantzisko inditarrak bateatzen. Irudi margotu orren aurrean, altarearen gainean, Txerrena menperatuta daukan Mikel deunaren irudia dago. Au XV gizaldikoa izan daiteke. Alboetan itxurea dana kentzen daben irudi bi, "Olot" tankerakoak. Oneik ez dabe egiten besteren edertasuna maiztu baiño.

Arrizko irudi eder bat dago emen, Ibaseta abizenaren ikurdia, alde bakoitxetik kimera batek eusten dautsala. Au toki onen atzeko orman dago.

AMA NEKETSUARENA

Mikel deunarena baiño altaratik urrago dago, altara-inguruaren ondoan. Sarreran arrizko arkua, ez puntu-erdizkoa; beeratua edo eskartzano deritxona baiño. Burdiñezko sara bat dauko inguruan.

Toki au 1531n. urtean egiña da. Altara txiki bat dauko barruan eta onen iruditegiak puntu-erdiko arkua dauko inguruan. Iruditegia zurezkoa eta margo askoduna da eta Kristo illa agertzen dausku amaren besoetan. Ortik tokia- ren izena: "Capilla de N^a S^a de las Angustias".

Notiñak dagozen lez eta ain eraginkor dagozelako eta euren agerkerea bizi-bizia dalako, gero agertuko dan Barroko tankera iragarten dabela dirudi, urten-urtenak (alto relieve) diran irudiak, argi sartzen dira klasiku-tan- keran. Ibarra'tar Javier'ek diñoanez, Beaugrant'tar Guiot'enak izan daitezke. Orozko'n dan Olarte'ko Ama Neketsuaren taldeagaz dauan antza artzen dau orretarako oiñarri lez, eta au bai, au margolari flamenko onena da.

Aztergarria da toki au eleizatik banatzen dauan burdin- sarea, benetako erti-lana. 1550n. urtean egin eban Urisa-



ri'ko Juan Lopez'ek. Arrasate'koa izan zan au eta beronen maisu zan Logro- ño'ko burdi-saregile baten bideak jarraitzen dauz.

Burdin-sare au arrizko orma-ertz baten gainetik doa eta zati bi daukaz, bekoka goikoa baiño ohea eta goiko au apaindua Irusta abataren irudiaren ingur- ruan. Irudi au erdi-inguruan dago.

Ama Neketsuaren Eleiz-toki onetan dago XVI gizaldian "Kolejiata" onetan abat izan zan Irusta'tar Diego'ren illo- bia. Illobiaren gainean irudi talde bat: Abata belauniko aurki baten eta aurki onetan abataren abizenaren ikurdia. Gaur ikurdi au alboko orman dago, aurkirik ez dagoalako.

Irusta Abata bera sotana baltzaren gainean garri-gaiñeko jazki zuria daua- la dago.

Beronen atzean beste gizaki bat agiri da, zutunik eta beroneri begira. Ibiltari edo erromes bat izan daitekela diño, alboz boltsa bat eta Txapel baragarri baten zerrede- tan oskolak edo kontxak daroazelako.

Irudi biak zurezkoak eta bizi-bizia dira. Aste Santura- ko egiñak diran irudigille españatarren batzuk gogoratzen dauskuez- Mugartegi'k doñosku abatak irudi au ikusi eba- nean auxe esan ebala: "Ba-nekian motza egin nunduela jaiotzatik, baiña ez neban uste ain motza".

Mugartegi -k diñoanez, irudi oneik abata koroatua izan zaneke irudiak dira eta erromesa dakoroia ezarten dautso- na. Orretarako mitra bat bear eban, baiña gaur ez dago mitrarik, eta orduan be ez.

Irudi oneik be Beaugrant'eko Guiot'enak dirala diño.

KRISTO KURUTZEKOARENA TA ECCE **HOMO**

Altarearen ondoan eta eskuma-aldetik, Kurutzeko Kris- to'ren altarea egoan. Au gaur Ama Neketsuaren eleiz- tokian dago eta orde mai bat ipiñi da eta mai onen gainean Ecce Homo'ren irudi bat, gizonaren neurrikoa eta XVIII gizaldikoa.

Eskumako orman be-beian arri-idatzi bat dago eta Ikaz- tegi'tar Juan'ek eta onen emazteak egiten daben curen olako irabazien emoitza gogoratzen dau.

OLAZAR'tar Martin'ek

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ